c09. Plaza

1. Sarrera. Plaza zera da: Hiri-lurzoruko espazio publikoen sareko elementu zabala eta itxia. Bertan hiriko potereak adierazten dira: Erlijiotsua, zibila, ekonomikoa eta soziala –edo fisikoa- (Sienako adibidea: Piazza del Campo, eta duomo eta azokaren plazak). Hasierako plaza batzuk pribatuak ziren (Adibideak: Babiloniako ziguratarren plaza. Beijingeko Hiri Debekatuaren plaza). Kalea bezala, plaza ere eszena edo antzezleku da. Plaza euskal inkontziente kolektiboan: Publikotasunaren sinonimo gisa (herri-kirol eta bertsolaritzaren antzezleku); *kalekumea* negatiboa bada, *plazagizona* positiboa da; merkatu edo azokaren sinonimo gisa ere erabilia. Adibideak: Idi-probak Astigarragan. Bertsoak balkoitik balkoira Zaldibarren. Ordiziako plaza edo azoka, asteazkenero.
2. Forma ezberdinetan oinarritutako sailkapenak gorabehera, hiritarren topagunea izaki, historikoki bi paradigma ezberdin jarraitu dituzte plazek: Greziako Agora eta Erromako Foroa. Agoran eraikinak proiektatzen dira eta espazioa hondarra besterik ez da, eraikinen artean geratzen den emaitza, alegia; irekia da (Grezia Klasikoan, behinik behin; garai helenistikoan gauzak aldatzen dira); Foroan espazioa proiektatu eta itxi egiten da; bertan ardatz antolatzaileak agertzen dira; eraikinak espazioaren menpe diseinatzen dira. Adibideak: Atenasko Akropoliko Doxiadisen eskemak. Praenesteko *Fortuna Primigenia*ren tenplua (K. a. I. mendea). Olinpiako esparru erlijiotsua. Atenasko agora (K. a. IV. eta II. mendeetan); Attalusen stoa berreraikia. Assosko agora helenistikoa (K. a. II. mendea). Miletoko agora (K. a. II. mendea), denboran zehar itxi egin zena. Efesoko agora erregularra. Calleva Atrebatum *oppidum*aren foroa (gaurko Silchester, Ingalaterra). Timgadeko foroa (gaurko Argelian). Erromako erresuma-foroa.
3. Erdi Aroan hiru plaza bereizten dira: Elizaren plaza, udaletxearen plaza eta merkatuaren plaza (askotan, harresietatik kanpo). Adibidea: Torun, Polonia (1.231an eta 1.641an). Erdi Aroko bastidetako –Frantziako planta berriko hiri antolatuetako- plazak: Monpazierko bastida erregularraren plaza aterpeduna, izkina bitxiekin. Lapurdiko Bastida, non etxeak atzeratzen diren plazari espazioa uzteko. Bastidetako udaletxe-merkatu estaliak, zurezko egituradunak: *Halle*-ak.
4. "*Place Royal*" edo erret plazak: XVII. mendean Parisen sortutako plaza mota, Italiako Pizkundeko hainbat plaza erregularren (1421-51ko Florentziako Annunziata plaza —Ferdinando Mediciren estatuaren inguruan—, 1492-98ko Vigevanoko Ducale plaza —Bramante; 134 x 48 m—) ondorengoa dena. Ezaugarri nagusia: pantaila itxia osatzen dute erregearen (Enrike IV.a, Luis XIV.a, Luis XV.a) estatuaren inguruan; ezagunenak: Place Dauphine, Place des Vosges, Place des Victoires, Place Vendôme, Place de la Concorde. Espainian "*Plazas Mayores*" deitu ziren (Valladolidekoa, Salamancakoa eta Madrilgoa dira ezagunak). Euskal Herrian antzerakoak egin ziren geroago Gasteizen (Olagibel, 1781-90), Donostian (Ugartemendia, 1815), Bilbon (1829-49) edo Tolosan (Etxeberria, 1853).
5. Camillo Sitteren "errezetak" ("*Hirien eraikuntza oinarri artistikoen arabera*" izeneko 1.889ko liburuan agertu bezala), estetikan eta funtzionaltasunean oinarrituak, Alemania, Austria, Italia eta Frantziako adibideak ikusi eta aztertu ondoren:
    - Enparantzaren zentruak hutsik egon behar du. Adibideak: Iturriak Nüremburg, Rotenburg eta Sienako plazetan. Monumentuak Signoria plazan, Firenzen, eta San Antonio aurreko plazan (Donatelloren Gattamelataren estatuarekin), Padovan. Garaipen Arkua Parisen eta Erromako foro errepublikarrean. Obeliskoak Karnaken eta Erromako San Petri plazan.
    - Enparantzak itxia izan behar du (bestela ez da plaza, bidegurutzea baizik). Plaza itxien artean, turbina formakoak ederrenetakoak dira, sarreretako kaleen perspektibak itxi egiten dituztela. Adibideak: Uffizi portikoa, Firenze. Kerkboog, Nijmegen. Hofburg –Austriar Erresumaren jauregia-, Wien; plaza berez ez da itxia, baina jauregiaren forma ahurrak espazioa nolabait ixten du. Garnierren opera aurreko bidegurutzea, Paris. Michelangeloren Kapitolioaren plaza, Erroma.
    - Enparantzak proportzio egokia behar du (azpimarratzen du plaza handiegiak ez direla egokiak). Adibideak: Notre Dame aurreko plaza, Paris; bere eboluzioa Sitteren ustez desegokia izan da. Piazza Navona, Erroma. Milaneko Duomoaren plaza. Panteoiaren plazatxoa, Erroma.
    - Enparantza multzoak ederrak dira. Adibidea: Salzburgo (Residenzplatz, Domplatz eta merkatuaren plaza). San Marcosen piazza –katedralera begira- eta piazzeta –aintzirara begira-, Venezia.
    - Plaza irregularrak ederrak dira, zurrunak izan ordez malguak direlako.
6. Euskal Herriko frontoi plazak, gureak diren hirigintza-altxorrak (Zuberoa eta Lapurditik Bureba eta Errioxa Garaiaraino). Askotan eustorma gisa erabilia, baina plaza formalki ixteko ere balio duen elementu funtzionala. Urandia margolariaren frontoia.
    - Getaria (hiriaren atean); Pasai Donibane (udaletxearen fatxadan); Legasa, Nafarroa (elizaren fatxadan); Maule inguruko herrixkak (hilerriaren hesian). Luhuso, Lapurdi; eta Araia, Araba (elizarekin batera espazioa mugatuz). Arraitz, Iratxeta eta Urroz, Nafarroa (elizarekin hiri-espazio esanguratsuena eratuz).